
Sorturen indarkeria matxistaren kasuen kudeaketarako Barne protokoloa

Aurkibidea

A/ ATALA: MARKO OROKORRA

1. Sar hitza: protokoloaren helburua eta filosofia

2. Zer ulertzen dugu indarkeria matxista gisa?

3. Zer ulertzen dugu kudeaketa koherente gisa?

4. Protokoloaren aplikazio eremuak

4.1. Protokoloaren aplikazio eremuak: pertsonak

4.2. Protokoloaren aplikazio eremuak: espazioak

5. Zein indarkeria kasuri egingo diogu aurre?

5.1. Prozesuen sailkapenerako irizpideak

5.2. Eraso matxisten taula

5.3. Testuinguru-elementuak

6. Nola egingo diogu aurre? Kasuaren arabera, garatuko diren prozesuak.

6.1. Prozesuaren oinarri orokorrak

6.2. Prozesuen ezaugarriak eta neurriak

21

B/ ATALA: PROTOKOLOAREN APLIKAZIO PROZEDURA SORTUREN BAITAN

1. Aplikazio eremua

2. Kudeaketarako markoak eta ardurak

3. Prozedura: prozesuaren faseak

3.1. Salaketa bideak

3.2. Aurre balorazioa eta aktibazioa

3.3. Prozesuaren diseinua eta garapena

3.4. Prozesuen itxiera

4. Bitartekoak

A / ATALA: Marko orokorra

I. SAR HITZA: PROTOKOLOAREN HELBURUA ETA FILOSOFIA.

Indarkeria matxistaren kasuei aurre egiteko protokolo hau, Plan Feminista integral baten barnean kokatzen eta ulertzen dugu. Plan horretako hanketarik bat izanik, honela ezaugarritzen da:

- Gaurko errealitatetik abiaturik lagunduko digun tresna da, **baliogarria eta praktikoa izatea xede duen tresna.**
- Ezker abertzalean indarkeria matxistaren kasuen aurrean, **kudeaketa koherente eta kolektiboa burutzen lagunduko digun** tresna. Zer egin, nola, zergatik eta nor(tzu)ekin erabakitzen lagunduko digun euskarri praktikoa.
- **Klabe eraldatzaile eta erreparatzaileetan** oinarritutako ikuspegian indarkeria(k) ulertu eta berauei aurre egiten jarrera orokorra finkatzen lagundu beharko liguke. Filosofia bat da; bai eta, ezker abertzalea bera feminista egiteko bidean tresna lagungarri izango zaiguna, barne eraldaketa bera ematen lagunduko diguna ere.
- **Prebentzioa, trebakuntza eta gogoeta kolektiboari** heltzea. Abiapuntua, kolektiboki bide bati ekitea da: klabe eraldatzaile eta integralean espazio seguruak eraikitzen, eta erantzukizun pertsonaleta kolektibotik kudeatzen.
- Hasieran aipatu bezala, gaurko errealitatetik abiatzen bada ere, etorkizunera begira berau iraultzeko helburuak ere baditu. Hala, **plan feministaren azken helburua ezker abertzalea indarkeria matxistarik gabeko espazio aske eta eroso bilakatzea litzateke.**

mi

Oharra1: Protokolo honen elaborazioarekin saiakera ikaragarria egin badugu ere, jakin badakigu gaur gaurkoz aurreikusten zailak diren kasuak ager daitezkeela bihar, edo prozedura orokorretik ihes egingo duten kasuekin lan egitea tokatuko zaigula. Horregatik, nahiz eta aipatutako zailtasunak ager daitezkeen, bere potentzialitate trebatzaile eta eraldatzailea azpimarratu nahi genuke. Norabide bat da, iparrorratza.

Oharra2: Marko teoriko hau partekatua da ezker abertzalearen erakundearen artean, zehazki LAB eta Ernairekin, bere aplikazioan erakunde bakoitzak bere ezaugarri eta barne prozeduren arabera zehaztapena izango badu ere. Era berean, EH Bilduren “Indarkeria matxistaren aurrean protokoloa” ere, filosofia berekoa da. Zentzu honetan, ezker independentismoaren baitan indarkeria matxistaren kasuen kudeaketari begirako koordinazio bideak aurreikusten dira.

2. ZER ULERTZEN DUGU INDARKERIA MATXISTA GISA?

Zer hartzen du bere gain indarkeria matxistak?

Emakumeen kontrako indarkeria (indarkeria sexista), zein beste indarkeria-mota batzuk: ezarritako genero-estereotipoak nahiz heteroaraua zalantzan jartzen duten

pertsonen kontrako indarkeriak ere aintzat hartzen ditu, besteak beste, lesbofobia, homofobia eta transfobia.

Indarkeria mota hauek ez dira eraso isolatuak edo eta indibidualak. Aitzitik, botere harremanez gurutzatutako egiturazko zapalkuntza patriarkalaren baitako adierazpenak dira. **Indarkeria transistemiko edo estruktural** moduan ulertzen ditugu beraz.

Egiturazkoa da, eta tamalez gaur-gaurkoz, gure baitakoa ere bai. Indarkeria matxista ez da soilik kanpotik datorren indarkeria bat. Erakunde eta mugimenduon baitan ere, besteak beste, emakume eta gizonen arteko botere-harremanak erreproduzitzen ditugu eta horiek baliatzen ditugu gure posizio eta pribilegioak finkatzeko. Gaur egun, parekidetasuna ez da errealitate bat geure etxeetan, lortu nahi dugun helmuga bat baizik.

Honen ildotik, indarkeria-matxistak dimentsio politikoa eta pertsonala dauka, egiturazkoa, eta era berean, gure militantzian bizitzen duguna. Horregatik, ezker abertzaleko erakundeok geure agenda politikoen lehen lerroan jartzeko eta modu koherentean kudeatzeko konpromisoa hartu dugu protokolo honen bitartez.

3. ZER ULERTZEN DUGU KUDEAKETA KOHERENTE GISA?

Dokumentu honek zehazten duen kudeaketa, bide orri eta prozedura koherente moduan definitzen da oinarrian, ezker abertzaleak duen filosofiarekin bat egiten duelako. Indarkeria matxistari eta jasoko diren erasoei aurre egingen diegu klabe eraldatzaile eta erreparatzaileetan.

Ezinbesteko zutabeak izango dira horretarako prebentzioa lantzea eta trebakuntza. Aurretiaz esan bezala, etorkizunera begira, sistemikoa den hori irauli eta ezker abertzalea indarkeria matxistarik gabeko espazio aske eta eroso bilakatzeko.

Indarkeria egiturazkoa eta gure baitakoa dela onartu behar dugu. Horrek esan nahi du guztiok blaitzen gaituela. Beraz, berritasun bezala, hiru erpindun hiruki moduan irudikatuko dugu. Hiru erpinek modu ezberdinean eragiten dute prozesuan:

- **Erasoia jasan duen pertsona¹ eta honen beharrak izango ditugu prozesuaren oinarrian** (determinantea izango ez bada ere).
- **Erasoia eragin duen pertsonak** aitortza eta deseraikuntza bideari ekiteko duen prestasuna beharko da.
- Prozesuak gure **kolektibo osoa interpelatu beharko du**. Gure komunitatea.

Gure ongizatean integralki eragiten dute eraso matxistek, eta, beraz, beharrezkoa iruditzen zaigu erasoek sortzen dituzten ondorio eta zauriak ikuspegi integral hone-tatik aztertzea, bai eta dagozkigun ardurak hartzea ere.

¹ Gaur-gaurkoz, kasuen gehiengoa kontutan harturik, protokoloan zehar, batzuetan, emakumea* aipatuko dugu. Gainera, hemendik aurrera erasoia egin duena eta erasoia jasan duena terminoak singularrean idatziko badira ere, pluralean izan daitezkeela kontutan hartu beharko genuke.

Zergatik interpelatu eta inplikatu kolektiboa? Erasoak, zapalkuntza sistemaren adierazpide gisa ulerturik, balio politiko kolektiboak urratzen dituelako. Era berean, prozesuan zehar gutariko bakoitzari eta gu guztioi arduraz jokatzeari dagokigu: arduraz jokatzeari dagokigu hartzen ditugun (edo hartzen ez ditugun) jarrerarekin. Hain zuzen ere, jarrera kolektibo horiekin sortu, areagotu edo murriztu ditzakegulako minak, edo prozesua bera lagundu dezakegu, edo zaindu ditzakegu kudeaketa lanetan ari direnak...

Beraz, erasoen aurrean, lanketa pertsonala egiteaz gain, ezinbestekoa izango da go-goeta eta osatze kolektiboa burutzea.

4. PROTOKOLOAREN APLIKAZIO EREMUAK

4.1 Protokoloaren aplikazio eremuak: pertsonak

Protokolo hau, indarkeria kasu batean egiturarekin lotura duen militanteren bat¹ (erasoa eragin duena/jasan duena) zuzenean inplikaturik badago aplikatuko da soilik. Honen arabera, hainbat kasuistikaren aurrean egon gaituzke:

- Erasoa jasan duena eta eragin duena militanteak dira; kasu honetan, protokoloaren alde guztiak (hiru erpinak) binkulatzen ditu.
- Erasoa eragin duena militantea da eta eraso jasan duena ez; kasu honetan, eraso jasan duena eta bere prozesua aintzat hartuko dugu baina aktibatuko den prozedura eraso eragin duenarekin zein komunitatearekin bideratuko da.
- Erasoa jasan duena militantea eta eraso eragin duena ez; kasu honetan, eraso jasan duena eta bere prozesua aintzat hartuko dugu, eta eraso eragin duenarekin jarrera bat finkatuko dugu, komunitatean behar den lanketa eginez.

Kasu guztietan, protokoloaren aplikazioan, **erasoa eragin duena / eraso jasan duena dikotomiaz haragoko ikuspegia** kontuan hartu eta komunitatearekiko lanketari ere bere zentralitatea eskainiko zaio.

Bide batez, protokolo honek jasotzen duen filosofiak gure inguruan gerta daitezkeen indarkeria matxistaren kasuen aurrean dugun jarrera orokorra finkatzen lagundu beharko liguke: bai oinarri sozialean gerta daitezkeen aurrean baina baita, oro har, gure auzo-herrietan izan daitezkeen aurrean ere. Nahiz eta kasu hauetan protokoloa ez dugun aplikatuko, gure komunitateari eragiten dioten heinean, jarrera bat izatera behartzen gaituzte.

Ohar moduan, protokoloa hasieran finkatu bezala, gure komunitatearen barne kudeaketarako tresna lagungarri bat da. Ezin dugu (eta ez litzateke ardurazko jarrera izango) eraso batek izan ditzakeen dimentsio guztien ardura gure gain hartu. Gure militantziari dagokion kudeaketa egokienaz arduratuko gara, jakinik, kasu askotan

¹ Oharra: protokolo hau ezker abertzaleko erakunde ezberdinen arteko lana da. Militante hitza erabili dugu, hain zuzen ere, erakunde bakoitzean egon daitezkeen egiturarekin lotura izateko formula ezberdinak barnebiltzeko ahaleaginean.

haragoko dimentsioa badutela. Jada existitzen diren eta horretan diharduten profesional sare nahiz baliabide ezberdinekin elkarlana egitea beharrezkoa da.

4.2 Protokoloaren aplikazio eremuak: espazioak

Bestetik, protokolo baten zehaztapenak ezinbestean garamatza espazioen, eta zehatzago, gure espaziotzat definitu izan ditugun eremu fisiko eta ez fisikoen inguruko gogoetara:

- **Herriko/txoko/elkarteak, bulego, egoitzak, gure txosnak:** emakumeentzat espazio libre eta seguruak izan behar dira eta honen ildotik, jarrera sexistak ez ezik, erasotzaileak ere ez ditugu bertan onartzen. Modu orokor batean, premisa hau bermatzeko lanketa espezifikoa behar da. Protokoloari lotuta, behin-behineko neurri gisa planteatu daiteke eraso bat burutu duen pertsona denbora jakin batez gure espazioetan ez sartzea.
- **Mobilizazio, ekimenak -gureak-, batzarrak, hitzaldiak:** aurreko irizpide bera bermatzea dugu helburu, nahiz eta jakin eremu zabalagoa izanda, zailagoa dela. Protokoloari dagokionez, behin-behineko neurri gisa planteatu daiteke parte ez hartzea.
- **Txosna-guneak:** ezin ditugu “gure” eremu gisa kokatu. Protokolo zabalagoen baitan landu beharra, mugimendu feminista edo eta herri-mugimenduetarekin batera.
- **Eremu digitalak:** egun hainbat eremu digital ere badira gure ekinbidearen espazioak, izan komunikatzeko (whatsapp, telegram...), izan erreferentzialtasun kolektibo edo pertsonala sortu eta aritzeko (sare sozialak esaterako). Eremu zabal eta malguak badira ere, garrantzitsua iruditzen zaigu hauen inguruko lanketa ere txertatzea protokolo honen baitan. Batzuetan, euskarri digitalak erabil daitezkeelako erasoak egiteko, baina baita eraso egin duenak duen erreferentzialtasun, publikotasun eta ahotsa kontuan hartzeko ere. Eta beraz, protokoloaren baitan, behin-behinekotasunez erabaki daiteke erabileraren inguruko neurriak hartzea.

Halaber, zehaztu behar dugu espazio anitzez ari garenean, zabaltasun eta, beraz, **esku hartzeko eskumen ezberdinez** hitz egiten ari garela. Eta ondorioz, batetik, behin-behineko etete neurriez hitz egiten denean, debeku batez baino (aurrerago zehaztu bezala), eraso jasan duen pertsonaren espazioa errespetatzeaz ari garela, eta prozedura ongi bidean jartzearen arduraz. Aldiz, ezker abertzaletik behin betiko kaleratze batez jardutean, eraso egin duena gure eremuetan ezin sartzea eragingo du, erantzukizun kolektiboz.

5. ZEIN INDARKERIA KASURI EGINGO DIOGU AURRE?

5.1 Prozesuen sailkapenerako irizpideak

Eraso matxistak aurpegi asko ditu, batzuk oso agerikoak dira, beste batzuk, aldiz, ia oharkabean pasatzen dira: intentsitate ezberdinez agertu eta bizi daitezke, batzuek marka fisikoak lagatzen dizkigute, beste batzuek, aldiz, ikusezinak diren markak; batzuk aurrez-aurre gertatzen dira eta, beste batzuk, tresna digitalen bitartez edo

hirugarren pertsona batzuen bitartez; batzuk eguneroko ogia dira, beste batzuk, aldiz, noizbehinkakoak... Baina guztiek, guzti-guztiek, zapalkuntza sistema patriarkala berproduzitzen dute: gure (emakumeon*) kontrola dute helburu, kontzienteki edo inkontzienteki harreman hierarkizatuak mantentzea ahalbidetzen dute eta jendarte patriarkal honetan gizonak dituzten pribilegioak egonkortzen dituzte.

Erasoak tipifikatzeko ohiko gradualitatetik urrundu egin nahi izan dugu eta beraz, **Prozedura izendatu ditugun markoen arabera banaketa egin dugu, erasoen kudeaketa egokian, proposatzen diren ibili beharreko bide orriei zentralitatea emateko.**

Beraz, eraso baten aurrean burutu beharreko prozesua sailkatzeko, zenbait elementu elkar-harremanean baloratuko ditugu. Lehenik, egungo jendartean -eta gure kolektiboaren begietara-, erasok duten afekzio eta onarpen aukera izango genuke, eraso guztiak ez direlako berdinak, ez atzo edo gaur gertatu, ez hemen edo han gertatu, ez guretzat ez besteentzat. Bigarrenik, jarrera edo eraso horiek pairatu dituen pertsonarengan duten inpaktua jarri nahi dugu oinarrian, baina baita kolektiboan duten eragina ere. Eta, azkenik, eraso bera ulertzeko testuinguru-elementuak ere izango ditugu kontutan. Horregatik, sailkapen honen mugak ez dira hertsia.

Aipatutako sailkapenerako, bi tresna nagusi baliatuko ditugu:

- Erasotako matxisten taula.
- Testuinguru-elementuak.

5.2 Erasotako matxisten taula

Ondoren datorren erasotako matxisten taula maila pertsonalean eragiteko eta funtzionatzeko molde kolektiboa politizatze ariketa bat da. Gure ustez, jarrera matxistak izendatzea eta zerrendatzea ariketa feminista izateaz gain, kontzientzia hartze eta trebakuntzarako neurri bat ere bada. Ezker abertzaleko kideon arteko jokamoldeetan, harreman militanteetan, botere harremanetan, espazioen kudeaketetan, lanen banaketan, gure harreman pertsonaletan zein sentimentaletan izaten ditugun harreman motetan egon daitezkeen jarrera matxistak identifikatzeko ariketa da, agerian jartzeko; alegia, ikasitako eta, areago, naturalizatu ditugun jarrera hauek eraldatzeko, desegin eta beste berri batzuk eraikitze. Harremantzeko eta finean, izateko eta funtzionatzeko modu berriez ari gara, pertsonon garapena, askatasuna, autoestimua eta ahalduntzea erdigunean izango dituzten eta bultzatuko dituzten moduez, hain zuzen.

1. TIPOLOGIA	2. TIPOLOGIA
<p>Prozedura honetan, sistema patriarkalak oinarri dituen botere- eta pribilegio-posizioak indartzen dituzten jokabide guzti-guztiak sartzen dira. Heuren helburua sistema matxista betikotzea da, balioa kenduz, bromak eginez eta gutxietsiz.</p> <p>Norbanakoaren edo taldearen ekintzak izan daitezke, pertsona bakarrari zuzenduak edo komunitate osoari, zuzenak edo mozorrotuak edo intentsitate desberdinetakoak, baina etengabeak eta suntsitzaileak izan ohi dira.</p> <p>Askotan, jokabide horiek hitzez adierazi edo ikusarazten saiatzen garenean, haien asmoa ukatu edo haien eragina arinkeriaz hartzen da.</p> <p>Jokabide horiek autoestimua hondoratu eta segurtasun eza eragiten dute eta, gainera, emakumeentzat* espazio EZ ASKEAK bihurtzen dituzte, emakumeen parte-hartze soziopolitikoaren-tzako hesi.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gutxiestea - Balioa kentzea - Kontuan ez hartzea - Zerbaitetara behartzea - Infantilizatzea - Objektu bihurtzea - Espazio fisikoan indarrez sartzea - Paternalismoa adieraztea - Haren ordezeko azalpenak ematea - Sistematikoki hitza kentzea/moztea - Eztabaidak monopolizatzea - Manipulatzea - Jarrera, itxura, jatorri, sexu-joera edota identitateak epaitzea edo horien gaineko txantxak egitea - Iruzkin matxistak egitea - Hizkera matxista erabiltzea - Jokabide matxistak babestea - Protokoloaren printzipio orokorrak ez errespetatzea 	<p>Prozedura honetan, pertsona jakin batzuk kikildu eta kontrolatzeko, publikoan zein pribatuan, izaten diren jokabideak sartzen dira.</p> <p>Nahiz eta jokabide mota hau hasieran sotila izan daitekeen, intentsitatez pixkanaka areagotzen diren jokabideak dira eta pairatzen duen pertsonarengan baliogabetze-sentimendua eragiten du.</p> <p>Askotan, jokabide horiek justifikatu edota erlatibizatu egiten dira, baita ardua pairatzen dituen pertsonarengan jarri ere.</p> <p>Jokabide horiek pertsonengan eragin suntsitzailea du, antsietate eta autoestimua gabezia handiko egoerak sortzen baitituzte. Gainera, komunitatean ere ezinegon handia eragiten dute, estresa eta tentsioa gehituz.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontrolatzea - Beldurra eragitea - Isolatzea - Irainatzea - Oihu egitea - Umiliatzea - Lerdeaz betetzea - Intimitatea ez errespetatzea - Xantaia emozionala egitea - Ekonomia kontrolatzea - Jokabide/eraso matxistak arinkeriaz hartzea - Protokoloa subjektibizatzea edo nahasketa sortzea

3. TIPOLOGIA	4. TIPOLOGIA
<p>Prozedura honetan sartzen diren jokatibideek, pertsonak hutsaren hurrengo bihurtzeaz gain, mendean hartzea dute helburu, euren buruaren eta gorputzaren jabe izatea galaraziz.</p> <p>EZezkoei aurre egiten eta errespetatzen ez jakiteagatik sortzen diren jokabide oldarkorrek dira, mina eta umiliazioa helburu dutenak.</p> <p>Horiek pairatzen dituzten pertsonak estres eta beldur egoera etengabe batera bultzatzen ditu, haiengan ez ezik euren ingurunean ere ondorio larriak utziz.</p> <ul style="list-style-type: none">- Jazartzea- Mehatxu egitea- Onartu gabeko ukitzeak egitea- Izaera sexualeko material grafikoa edo pertsona baten datu pertsonalak edo informazio intimoa bere baimenik gabe zabaltzea- Izaera sexualeko ezezkoaren aurrean behin eta berriz eta etengabe tematzea	<p>Prozedura honetan sartzen direnak bortizkeria handiko eraso matxistak dira eta, zigor gisa, pairatzen dituen pertsona suntsitzea dute helburu.</p> <p>Erasoak pairatzen dituen pertsonaren deshumanizazioa dakarte, berarengan eta komunitatean ondorio oso larriak eraginez.</p> <ul style="list-style-type: none">- Sexualki erasotzea- Fisiko edo psikologikoki erasotzea- Adin txikikoak sexualki abusatzea- Adin txikikoei erasotzea emakumea mintzeko- Erahiltzea

5.3 Testuinguru-elementuak

Aipatu dugun bezala, badaude eraso bera, **baldintzatzen duten faktoreak**. Testuinguru-elementu moduan definitu ditugu, eraso bera larriagotu dezaketen testuinguruak kontuan hartzea beharrezkoa delako identifikazio egoki baterako.

Ez baita gauza bera eraso bat etengabe errepikatzeak ekar ditzakeen ondorioak jasaten dituen pertsona horren anulazioan, ez baita gauza bera botere-posizioetatik egitea edo botere-posizioak erabiltzea... Erasoek dimentsio ezberdin bat hartzen dute testuinguru-elementuekiko harremanean.

Eta, beraz, konplexutasun honetatik, kasuistika bakoitzak prozedura propio bat beharko du egokitasunez identifikatua, zapalkuntza sistema bera iraultzea badugu helburu.

Honez hain, elementu hauetan, ezker abertzalean izaera propioa hartzen duten berezitasunak aintzat hartu behar dira: erreferentzia-ardura politikoa, ibilbide militante eta errepresiboa, rolak...

Hori dela eta, ezinbestekoa izango da, kasuan kasu, azterketa zorrotza egitea. Hona hemen erasoen azterketan kontuan hartu beharreko elementu batzuk:

- Botere posizioak
- Kokapen soziala
- Inpaktua
- Denbora
- Maiztasuna
- Ikusgarritasuna
- Intentsitatea
- Arriskua
- Sortutako ondorioak (eragindako mina / zer egiteari utzi)

6. NOLA EGINGO DIOGU AURRE? KASUAREN ARABERA, GARATUKO DIREN PROZESUAK

6.1 Prozesuaren oinarri orokorrak

Erasoa jasan duena zentroan: eraso jasan duen pertsonaren hitza aintzat hartu eta erritmoak errespetatuko dira prozesuaren baitan. Erabakiak, prozesuaren filosofia-rekin bat eginda hartuko dira.

Protokolo honen aplikazioa bateragarria izango da bestelako profesionalen sare eta zerbitzuen erabilerarekin, betiere, hauek oztopo ez badira. Are gehiago, kasuan kasu, beharrezkoa izan daitezke zerbitzu profesional psikosozial edo bestelakoak. Prozesu judizialarekin ere bateragarria izango da.

Konfidentzialtasuna eta informazioaren kudeaketa: oso garrantzitsua da salaketa egiten duen pertsonaren konfidentzialtasuna gordetzea.

Zer kontatu eta nola kontatu erabakitzea garrantzitsua da. Epaiketa publiko eta berbiktimizazio saiakeretatik babestu, eta erasoaren aurreko salaketa nahiz erantzunen izaera kolektiboa nor bere arduratzat hartzea beharrezko izango dira. Ez dugu zertan dena jakin, konfiantza egin protokoloaren kudeaketa-markoarekin.

Dena den, konfidentzialtasuna babestearekin bat, eraso jasan duenarekiko eta eraso egin duenarekiko beharrezko informazioa modu egokian partekatzea garrantzitsua da. Eraso egin duenak beharrezkoa izango du filosofia eraldatzailetik, zer den egindakoa entzun eta ulertzea. Aldiz, eraso jasan duenari, betiere bere erabakiz, prozeduraren berri eman behar zaio eta babestu.

Proporzionaltasuna: erasoaren arabera izango da erabili beharreko prozedura. Tipologia edo sailkapena, erabaki dugun momentuan izandako informaziotik abiatuko da; honen bidean eta jakitun, beti ere, prozedura orokorretik ihes egingo duten kasuekin lan egitea tokatuko zaigula. Eraso jasan duenaren ondoan egon eta bere prozesua aintzat hartu eta babestea izango da lehentasuna. Kasu larrietan erabakiak azkartuko dira eta kautelazko neurriak berehalakoak izango dira.

Bermeak: prozesuaren aplikazioan beharrezkoa izango da berrikusketak burutzea eta bakoitzaren eskubideak bermatzen diren ziurtasuna izatea. Kasu guztietan, eraso eragin duen pertsonari, protokoloa aktibatzeraz eraman gaituzten gertaerak-erasoak zeintzuk diren zehazki azalduko zaizkio, interpretazio desberdinetarako tarterik utzi gabe. Eraldatzailea izango den prozesuaren abiapuntu ezinbestekoa delako egindakoa zer den ulertu eta berau eraldatzea.

6.2 Prozesuen ezaugarriak eta neurriak

Taulan agertzen diren egoera guztiak dira eraso matxistak. Hala ere, prozesuen arabera sailkapena egin dugu, eraso bakoitzaren aurrean eta berau iraultzeko helburuz ibili beharreko bide, baliabide eta tenpusak ahalik eta egokienak izateko asmoz.

Hala ere, erasoaren aurreko prozeduretan sartu aurretik, **bide eta neurri horiek zergatik erabili behar diren azalduko dugu:**

- **Prozesuaren abiapuntu gisa** eraso bera egongo da. Eraso batek ezinbestean ekarri behar digulako, norabide ezberdinetan eta abiapuntu ezberdinekin, prozesuak aktibatzea: jasan duenaren kasuan, bere borondate eta beharrak izango ditugu kontutan; eraso eragin duenaren kasuan, berriz, ezinbesteko izango ditugu prestasuna eta minaren aitortza; eta, azkenik, kolektiboaren kasuan, lanketa espezifiko kasu guztietan emango da.
- Klabe eraldatzailearen oinarri izanik, **trebakuntza ezinbesteko tresna** izango da protokolo honen aplikazioan, trebakuntza feminista baita jarrera matxistak desbertatzeko biderik eraginko-rrena. Trebakuntzaz ari garenean tresnez ari gara, eta honek, kasuan kasu, izaera eta formatu ezberdinetako formakuntza ekar lezake: hitzaldi, eztabaida, hausnarketa kolektiboak, zikloak... **Kasuan kasu, eraso eragin duenarekin, prozesu terapeutikoez** ere jardungo dugu, ez gaixotasun izaerez ari garelako, sozialak izanik ere deseraikuntza prozesuez ari garenez, profesionalen laguntza beharrezkoa duen praktika erreal pertsonala dutelako baizik.

- **Zergatik militantzia eteteko neurriak?** Honako helburua hauek betetzen dituztelako: behin-behineko etetearen kasuan, prozesuak aurrera egoki egin ahal izateko baldintzak sortzea; behin betiko etetearen helburua, berriz, erasoja jasan duen pertsonari zein kolektiboari (gure komunitateari) espazio segurua bermatzea eta ezker abertzaleak duen diskurtsoarekin jarrera koherentea izatea.
- **Militantziari berriz ekiteaz.** Prozedurak zehaztutako ibilbidean parte hartu ostean, protokoloa aplikatu zaion pertsonarengan jarrera aldaketa baldin bada, militantziari berriz ekiterik izango du. Aldiz, prozeduran sartu ez edota parte hartu arren, praktikan bere jarreretan aldaketarik gertatzen ez bada, prestasunik ez duela ulertuko da eta beraz, finean, ezker abertzalearen filosofiarekin bat ez duela egiten, hots, kanpo geratuko litzateke. Azken hau, ikuspuntu eraldatzaile batetik, kolektiboarentzat galera bat izango litzateke.
- **Informazioaren kudeaketan** asmatzea gakoetariko bat da prozesua aurrera eramaterakoan. Kasu guztietan, erasoja eragin duen pertsonari, protokoloa aktibatuzera eramaten gaituzten gertaerak-erasoak zeintzuk diren zehazki azalduko zaizkio. Eraldatzailea izango den prozesuaren abiapuntu ezinbestekoa delako egindakoa zer den ulertu eta berau eraldatzea. Gainera, horrek guztiak kolektiboari eragiten dio. Nori zer jakin behar dugu? Informazioaren kudeaketa gakoja izango da, erasoja izendatu eta ezaugarritzerakoan, baina baita erasoaren aurrean kolektiboak izango duen erantzukizunari dagokionean ere, berbiktimizazio, zurrumurru, minak... saihesten. Ez dugu zertan dena jakin, berebizikoa izango da konfiantza egitea protokoloaren kudeaketa markoarekin.

	1. Prozedura	2. Prozedura	3. Prozedura	4. Prozedura
Prozesuaren ezaugarritzea	<p>Indarkeria mota hauek erabat alboratzeko interbentzio lerro feminista iraunkorra beharrezkoa izango bada ere (Plan feminista), garrantzizkoa da jarrera hauek ez normalizatzea eta maila pertsonal zein kolektiboan neurriak hartzea</p>	<p>Pertsona zehatzen aurkako jokamoldea izanda, aplikazioak hiru erpinei erreparatu behar die, eraso eragin duenaren jarrera zuzentze aldera formazioa oinarri hartuta.</p>	<p>Kasu hauetarako abiapuntua eraso jasan duenaren mina dugu, baina baita komunitatean sortutakoa ere. Beraz, honen lanketari emango diogu zentralitatea.</p>	<p>Aurrekoan bezala, kasu hauen abiapuntua eraso jasan duenaren mina dugu, eta baita komunitatean sortutakoa ere.</p> <p>Honen arabera, baloratuko da noraino ematen diren, komunitatean bertan, gako erreparatzailean aritzeko baldintzak. Honek ez du esan nahi pertsona horren erreparazioan sinesten ez dugunik, baina kasu askotan ez dira baldintzak ematen barne mailako kudeaketa bideratzeko. Edozein kasu, kudeaketan protokoloaren filosofia orokorra bermatuko da.</p>

	1. Prozedura	2. Prozedura	3. Prozedura	4. Prozedura
Erasoa jasan duena	<p>Babes kolektiboa eta egiturazkoa izango du.</p> <p>Denon ardura eta bakoitzarena izango da.</p> <p>“Zure ondoan gaude”, “Guk sinisten zaitugu”</p>	<p>Babes kolektiboa eta egiturazkoa izango du.</p> <p>Kautelazko neurrien beharra baloratuko da berarekin.</p> <p>Aliantzak landuko dira.</p>	<p>Babes kolektiboa eta egiturazkoa izango du.</p> <p>Kautelazko neurrien beharra eta izaera definituko da berarekin.</p> <p>Entzun eta aholkatzea izango da gure lana.</p> <p>Gure jakintzan dauden eta konfiantzazko diren baliabide eta zerbitzu profesional ezberdinen berri emango diogu. Erabakia berea da.</p> <p>Aliantzak landuko dira.</p>	<p>Babes kolektiboa eta egiturazkoa izango du.</p> <p>Kautelazko neurrien beharra eta izaera definituko da berarekin.</p> <p>Entzun eta aholkatzea izango da gure lana.</p> <p>Gure jakintzan dauden eta konfiantzazko diren baliabide eta zerbitzu profesional ezberdinen berri emango diogu. Erabakia berea da.</p> <p>Aliantzak landuko dira.</p>

	1. Prozedura	2. Prozedura	3. Prozedura	4. Prozedura
Erasoa eragin duena	<p>Ohartarazpena egingo zaio jarrera matxista izan duen militanteari.</p> <p>Trebakuntzan parte hartzeko konpromisoa hartuko du.</p> <p>Jarrera aldaketa ez bada ematen eta bere horretan jarraitzen badu 3. ohartarazpenarekin militantzia etengo zaio.</p>	<p>Erasoa jasan duenaren erreparaziorako beharrezkoak badira, kautelazko neurriak aplikatuko zaizkio (egoitza aldaketa, bileretara sarbidea mugatu...).</p> <p>Aurrez aurre ohartarazpena egingo zaio jarrera matxista izan duen militanteari.</p> <p>Militanteak, bere aitortzarekin batera, formazioa jasotzeko konpromisoa hartuko du.</p> <p>Jokamoldearen jarraipen zuzena egingo zaio.</p> <p>Egoera errepikatzen bada, edo antzeko egoera batean aurkitzen bagara militantzia eten egingo zaio.</p> <p>(3. prozedurako trataera izan dezakeen baloratu).</p>	<p>Militantzia etengo zaio behin behineko neurri modura prozedura martxan jarri eta behin betiko erabakia hartu bitartean.</p> <p>Liberatu zein arduradunen kasuan, liberazioa zein ardurak bertan behera geratuko dira eta ez lirateke berreskuratuko.</p> <p>Bere aitortza eta erreparaziorako borondatearen arabera, proposatutako prozesuaren garapenaren arabera militantzia osoa berreskuratuko dezake.</p> <p>Bideak eskaera ezberdinak izan litzake kasuan kasu: prozesu terapeutiko tuteltua, trebakuntza...</p>	<p>Militantzia etengo zaio kautelazko neurri modura, prozedura martxan jarri eta behin betiko erabakia hartu bitartean.</p> <p>Prozedura honi dagokion erasoen baieztapenak zuzeneko kanporaketa ekarriko du.</p>

	1. Prozedura	2. Prozedura	3. Prozedura	4. Prozedura
Kolektiboa	Trebakuntza feminista jarraitua izango da jarre- ra matxistak alboratzeko bitartekoa.	Trebakuntza feminista jarraitua izango da jarre- ra matxistak alboratzeko bitartekoa.	Kasuan kasu, duen eragin esparruaren arabera (herri, eremu, komunitate), lanke- taren beharra aztertuko da, bai eta honen nolakotasuna ere: trebakuntza feminis- ta, indarkeria matxistaren inguruko saioak, gatazkak kudeatzeko lanketa, gogoe- tarako espazioak sortu...) Erasoa egin duena, proto- koloaren markoa parteka- tzen dugun beste erakun- de bateko militante ere denean, beharrezkoa den kudeaketa egingo da.	Kasuan kasu, duen era- gin esparruaren arabera (herri, eremu, komuni- tate), lanketaren beha- rra aztertuko da, bai eta honen nolakotasuna ere: trebakuntza feminista, indarkeria matxistaren inguruko saioak, gataz- kak kudeatzeko lanketa, gogoetarako espazioak sortu...) Erasoa egin duena, proto- koloaren markoa parteka- tzen dugun beste erakun- de bateko militante ere denean, beharrezkoa den kudeaketa egingo da.

	1. Prozedura	2. Prozedura	3. Prozedura	4. Prozedura
Informazioaren kudeaketa	<p>Protokoloaren kudeaketaz arduratzen den guneak dagokion marko edota ardurarekin partekatuko du kasuaren beharren arabera.</p>	<p>Protokoloaren kudeaketaz arduratzen den guneak dagokion marko edota ardurarekin partekatuko du kasuaren beharren arabera.</p>	<p>Protokoloaren kudeaketaz arduratzen den guneak dagokion marko edota ardurarekin partekatuko du kasuaren beharren arabera.</p> <p>Kanpora begira egingo ez bada ere (nahiz eta hori egitea baloratuko den), eraso egin duen pertsonak parte hartzen duen esparruan partekatuko da.</p> <p>Prozedura judiziala egongo balitz, protokoloaren prozedura-egoera aintzat hartuz, kasuan kasu aztertu eta erabakiko da.</p>	<p>Protokoloaren kudeaketaz arduratzen den guneak dagokion marko edota ardurarekin partekatuko du kasuaren beharren arabera.</p> <p>Gertaeraren berri tokian tokiko Mugimendu Feminista edota bestelako eragileekin partekatu behar den baloratuko da.</p> <p>Erasoa publikoa egin behar den baloratuko da.</p> <p>Prozedura judiziala egongo balitz, erakundeak dituen datuak eraso jasan duenaren alde honen defentsaren esku jartzeko prestutasuna izango du. Hala ere, eraso jasan duen pertsonaren bizitza arriskuan ikustekotan, guk geuk prozedura abiatzea erabaki dezakegu.</p>

3. eta 4. tipologiako erasoen aurrean, arriskuen balorazio bat egingo da eta erabakiak azkartu ahal izango dira.

3. eta 4. tipologiako erasoen aurrean, halako egoerek behar duten formakuntza espezializatua ziurtatzeko bitartekoak jarriko dira.

B/ ATALA:

Protokoloaren aplikazio prozedura Sorturen baitan

1. APLIKAZIO EREMUA

Protokolo hau barne tresna izanik, Estatutuetan jasota dagoen bezala, **loteslea izango da Sortzaile orentzat**. Horrek esan nahi du Sortzaile orok duela protokoloa ezagutu, errespetatu eta aplikatzeko betebeharra, bai modu pertsonalean inplikaturik dagoen kasuetan, baita kolektiboaren parte gisa ere. Zentzu berean, Sortzaile ororen betebeharra da honako erasoan aurrean egitura ohartaraztea.

Gure komunitatea zabala denez, prozesuen garapen egokirako, Sortzaileez haragoko borondatezko binkulazioa bila daiteke. Horrela, Sortzaileak izan gabe, kasuetan inplikaturik pertsonen konpromisoa har dezakete protokoloaren prozesuen garapenarekiko (konpromiso hori idatziz jasoko da).

2. KUDEAKETARAKO MARKOAK ETA ARDURAK

IM Protokoloaren Kudeaketa Gunea: Honako hau dugu Sorturen baitan protokoloen kudeaketa eta segimendurako marko nagusia, Barne Antolaketako ardurapean.

181

Marko horren funtzioak:

- Kasuen balorazioa, sailkapena eta neurrien proposamena. Kasuren batean sailkapena zalantzarria balitz, adituen aholkua baliatuko litzateke.
- Kasuei lotutako prozeduren segimendua, berrikustea eta itxiera.
- Kasuen erregistroa eta urteko txostena (salaketa kopurua / zenbatetan aktibatua den / aplikaturik neurriak...).

Osaketari dagokionez: Barne Antolaketa arduraduna, Plan Feministaren arduraduna eta gaian aritu/aditua den arduradun nazional bat.

IM Kasu bakoitzerako, Inplementazio Lan Taldea: Kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera, Kudeaketa Guneak honako talde hau eratzea erabaki dezake.

- Funtzioa: kasu zehatzaren esku-hartzearen garapena eta segimendua.
- Osaketa: kasuan kasu zehatzuko da; gertatu den herri edo eremutik ordezkari bat, herrialdeko ekipoko kide bat eta Kudeaketa Gunearen kide bat.

Nazio Idazkaritza da Sorturen IMKKBP-ren inguruko erabakiak hartzeko zuzendaritza gunea. Honetarako, Protokoloen Kudeaketa Gunearen beharrezkoa den informazioa eta proposamenak jasoko ditu. Era berean, protokolo kasuen segimendua orokorra egingo du. Azkenik, Nazio Idazkaritzaren erabakia izango da kasuren batek kudeaketa publikorik eskatzen duen.

Azkenik, azpimarratu beharra dago, nahiz eta arduradun eta marko espezifikoak izan, **protokoloen kudeaketaren ardura egitura osoarena** dela, ez arduradun horien, ez orokorrean emakumeena. Beraz, kudeaketa oro modu koordinatuan garatuko da.

3. PROZEDURA: PROZESUAREN FASEAK

3.1. Salaketa bideak

Bi bide eskainiko ditugu salaketak jasotzeko. Edonola ere, bide guztiak identifikatzen errazak eta seguruak izan behar dira:

- Parteharturen bidez jar daiteke Kudeaketa Gunearekin harremanetan, protokoloa@sortu.eus helbidearen bidez.
- Egiturarekin zuzenean harremanetan jarriz jakinarazi daitezke kasuak. Egiturako herri/herrialde/eremuko edozein arduradunek, salaketa jaso bezain pronto, Kudeaketa Gunearen esku jarriko du, honek hurrengo urratsak defini ditzan.

Nork ohartarazi dezake erasoaz?

- Erasoa jasan duen pertsonak.
- Beste militante edo pertsona batek. Protokoloa abiarazteko zantzu nahikoak izan, ikusi edo bizitu izan baditu.
- Sorturen protokoloaren marko orokorra edota filosofia partekatzen duen beste erakunde batetik etortzen bada informazioa.

3.2. Aurre balorazioa eta aktibazioa

Protokoloaren Kudeaketa Guneak baloratuko du heltzen diren salaketek protokoloa aktibatzen duten. Horretarako, ezinbesteko informazioa eskuratuko da. Ez dagokio ez herrialdeko ez herriko egiturari erabaki hori hartzea, bai, berriz, dagokion informazioa ematea.

Kudeaketa Guneak aurre-balorazioa egiteko urratsak egingo ditu:

1. Lehenik, eraso jaso duenarekin harremanetan jarriko gara. Lehen elkarrizketan, bere testigantza jasotzearekin batera, protokoloaren filosofia eta norabidea partekatuko dugu, aurreikusten dituen neurriak azalduz.
2. Horren arabera, Kudeaketa Guneak kasuaren aktibazioa erabakiko du, eta behin-behineko sailkapen bat egingo du.
3. Sailkapenaren arabera, eraso eragin duen pertsonaren behin-behineko militantziaren etetea behar den baloratuko da, testuingurua aztertuz eta arriskuak baloratuz. Baiezko kasuetan, erabakia Nazio Idazkaritzan hartuko da. 4. prozedura eskatzen duen kasu baten aurrean egongo bagina, zuzenean diziplina kodea aplikatuko da.
4. Gainontzeko kasuetan, eraso egin duenarekin harremanetan jarriko gara; eta berarekin izango dugun elkarrizketan, jasotako salaketaren berri eman eta

eragindako mina edo bere jarduerak beste pertsonarengan izan duen eragina aurkeztuko zaio. Horren aurrean, alde batetik, esateko duena entzungo dugu, eta bestetik, protokoloaren filosofia eta norabidea partekatuko dugu, aurreikusten dituen neurriak azalduz.

5. Prozesuan zehar lekuko zuzenak soilik hartuko dira aintzat.

3.3. Prozesuaren diseinua eta garapena

Protokoloaren Kudeaketa Guneak, kasuaren behin betiko sailkapena/izendatzea zehaztuta, prozesuaren ezaugarritze orokorra definituko du:

- Erpin bakoitzeko lan filosofia eta prozesuaren ezaugarritzea.
- Jakinarazpenak eta informazioaren kudeaketa.

Behar den kasuetan, prozesuaren garapenerako Inplementazio Taldea eratuko du.

Honako hau izango da ardatzez ardatz beteko den prozedura:

Erasoa jasan duenaren kasuan,

Babesa eman eta akonpainamendua egingo zaio, kasuan kasu eskura izan ditzakeen errekurtsoen berri emanez.

Horrez gain, protokoloak ezartzen duen esku-hartze markoarekiko bere konpromisoa idatziz bilduko da. Bere binkulazioaren arabera, prozedura eta kudeaketen berri emango zaio.

Bere iritzia loteslea izango ez bada ere, proposatzen diren erabakiak/prozedurak nola jasotzen dituen eta erreparazio ikuspegi batetik asebetetzen duten aintzat hartzea garrantzitsua izango da.

Erasoa eragin duenarekiko,

1., 2. eta 3. prozedura eskatzen duten kasuen aurrean, eraso eragin duen pertsonari proposatzen den prozesua edota neurriak jakinaraziko zaizkio presentzialki berarekin egingo den lanketan. Kudeaketarako prozeduraren berri ere emango zaio. Abiapuntu gisa eragindako minaren onarpena/aitortza egon beharko da, eta 2. eta 3. prozeduren kasuan, proposatutako neurriak aintzat hartuz deseraikuntza eta erreparazio bideari ekiteko bere prestasuna eta konpromisoa espresuki/idatziz eman beharko du.

Protokolo hau arautzen duten printzipioak eta bermeak betetze aldera, eraso eragin duen pertsonari berau aktibatu zaiola jakinarazten zaion unetik, onartutako neurriak/prozesua abian jarri arteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da.

Proposatutako bidea onartuko ez balu, beteko ez balu edota 4. prozedura baten aurrean egongo bagina, diziplina kodea aplikatuko da.

Komunitatearekiko,

Kasu bakoitzak dituen ezaugarriak kontuan hartuz lanketa bereziak norekin edo ze eremuetan (egituran, batzarrean...) egin beharko diren zehaztuko da, baita egin beharreko lanketa mota. Zentzu honetan, arreta berezia jarriko zaio inplikatuenguruz inguru pertsonalari.

Edozein kasu, lanketak honako helburu hauek izango ditu:

- Hartu diren erabakiak behar den eremuetan konpartitzea.
- Komunitateak duen papera eta erantzukizuna azpimarratzea.
- Indarkeria matxistaren dimentsionatzea, horri aurre hartzeko erak eta protokoloa beraren filosofia eta edukia lantzeko ere erabiliz.

Prozesua oztopatu dezaketen zurrumurruen ekiditea eta erantzukizunez jokatzeko kide guztien ardura izango da. Era berean, protokoloaren filosofiarekin bat eginez, inplikatuak aldean estigmatizazio zein seinalamenduak ekidin eta hauen inguruko zaintza/errespetuari erreparatuko zaio.

Azkenik, protokolo hau kudeatzea tokatzen zaien pertsonengan konfiantza izatea. Era berean, zurrutze edota protokoloaren deslegitimazio jarrerari erreparatu eta guztion ardura izango da hauei aurre egitea.

3.4 Prozesuen itxiera

Protokoloaren markoa eta eragin esparrua kontutan izanda, amaiera epea ez luza-tzen eta ahal dela zehazten saiatuko gara. Horrela, erpinen erpin, segimendu meka-nismoak jarriko dira.

- Kasu bakoitzean erpin bakoitzaren ibilbidea une ezberdinetan ixten joango da (bakoitzaren helburuen arabera).
- Prozesuak luzeak izaten dira, baina horrek ez du esan nahi etengabe hiru ardatzak maila berean aktibo izan behar ditugunik, ezta euren arteko etengabeko informazio trukaketa bat egon behar duenik ere.

Kasuaren behin betiko amaiera hiru erpinak itxtearekin batera egingo da. Horrekin, kasua artxibatuko da.

4. BITARTEKOAK

Protokoloen kudeaketarako, ezinbestekoa suertatu zaigu bere aplikazio egokirako zenbait baliabideren aurreikuspena.

Trebakuntzari lotutako batzuk gure baliabideekin beteko ditugu (Iratzar, Plan Femi-nista...), besteak beste:

- Prebentzioari lotutakoak, kidegoa eta komunitateari begira.
- Herri/gune batean protokoloa aktibatzean landu beharreko modulua.
- 1. eta 2. tipologiako kasuentzat, eraso eragin duenarentzat modulu espezifikoak.

Beste bitarteko batzuk berriz profesionalak izango dira: instituzionalak, terapeutak, trebakuntzari begirakoak (ahalduntze edo deseraikitze prozesuei begira)...